BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

4912

EBAZPENA, 2026ko urriaren 23koa, Industria Garapen eta Administrazioko zuzendariarena, zeinaren bidez zuzendu egiten baita Energia eta Meategien zuzendariaren 2012ko maiatzaren 21eko Ebazpenean atzemandako akatsa. Ebazpen horren bidez, Ofitas de San Felices S.A. merkataritza-sozietateari zuzeneko emakida eman zitzaion «C» ataleko baliabideak ustiatzeko, Santutis izenekoa, Peñacerrada-Urizaharra udalerrian (Araba).

AURREKARIAK

I.– Santutis kareharri harrobia (Peñacerrada-Urizaharra, Araba) ustiatzea Ofitas de San Felices S.A. merkataritza-sozietateari dagokio, Industria eta Meategiak Administratzeko zuzendariaren 2003ko ekainaren 16ko Ebazpenaren bidez A) sekzioko baliabideak ustiatzeko emandako baimenaren babesean eta Meatze Agintaritzak onartutako Ustiapen Proiektuaren eta Leheneratze Planaren arabera.

II.– Ofitas de San Felices S.A. merkataritza-sozietateak, ustiapen-baimen horren titularrak, C) sekzioko baliabideak ustiatzeko zuzeneko emakida eskatu zuen, urtarrilaren 27ko 107/1995 Errege Dekretuan xedatutakoaren babesean. Errege Dekretu horrek aukera ematen du A) sekzioko meategiak edo baliabide mineralak Meatzeei buruzko Legearen C) sekziora birsailkatzeko, betiere arau horretan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

III.– Dagokion administrazio-espedientearen izapideak egin ondoren, Energia eta Meategien zuzendariaren 2012ko maiatzaren 21eko Ebazpenaren bidez, «Ofitas de San Felices, S.A.» merkataritza-sozietateari C) ataleko baliabideak ustiatzeko zuzeneko emakida eman zitzaion, «Santutis» izenekoa, Urizaharrako udalerrian (Araba).

IV.– Ebazpen horretan 12.840 zenbakia esleitzen zaio emakidari Meatzaritzaren Katastroan; hala ere, Arabako lurraldean dagoen ustiategi bat izanik, lurralde horri dagokion erregistro-zenbakia esleitu beharko litzaioke.

V.– Ebazpen hori 2012ko ekainaren 15ean argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (117. zk.).

VI.– 2014ko martxoaren 18an, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariak ebazpena eman zuen, Arabako 2.035 zenbakiko «Santutis» ustiapen-emakida zuzenaren ustiapen-eskubideak Ofitas de Santutis S.L. merkataritza-sozietateari eskualdatzeko baimena emateko.

VI.– Arabako Lurralde Ordezkaritzaren jakinarazpenaren bidez, Garapen eta Industria Administrazioko Zuzendaritzari jakinarazi zitzaion akats bat antzeman zela 2012ko maiatzaren 21eko Ebazpenean jasotako «Santutis» zuzeneko ustiapen-emakidarako zenbakiaren izendapenean. Ebazpen horren bidez, ezin zen Arabako Ordezkaritzaren «Baimenen eta Emakiden Historia Liburuan» inskribatu, eta akatsak zuzentzeko eskatu zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Industria Garatzeko eta Administratzeko Zuzendaritza da ebazpen hau emateko organo eskuduna, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuan ezarritakoaren arabera (2024ko abenduaren 10eko EHAA, 239. zk.).

Bigarrena.– Meategiei buruzko uztailaren 21eko 22/1973 Legeak eta Meatzaritzaren Araubiderako Erregelamendu Orokorra onartzen duen abuztuaren 25eko 2857/1978 Errege Dekretuak ezarritakoa kontuan hartuta, eta erregistro-batasunaren eta ordena kronologikoaren printzipioari jarraikiz, emakidaren emate-zenbakiaren eta dagokion inskripzio-idazpenaren arteko kointzidentzia zehatzak funtsezko bi erregistro-bermeri erantzuten die: aldaezintasuna, erregelamenduak materialki eragozten baititu hutsarteak erreserbatzea, atzeraeraginezko inskripzioak edo hirugarrenen aldeko lehentasun-aldaketak; eta prozeduraren erabateko trazabilitatea. Horregatik, zenbakien arteko korrelazio zehatza eta nahitaezkoa ez da antolamendu-formalismo hutsa, lege-kontroleko mekanismo zorrotza baizik.

Hirugarrena.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikuluaren arabera, administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete beren egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak, ofizioz edo interesdunek eskaturik. Hori dela eta, zuzendu egiten da egindako akatsa, eta emakida horri zenbaki zuzena ematen zaio Arabako Meatzaritzaren Katastroan.

Aipatutako lege-manuak, eta, oro har zein berariaz, gai honetan aplikagarri diren gainerako xedapen guztiak aintzat hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

1.– Energia eta Meategien zuzendariaren 2012ko maiatzaren 21eko Ebazpena zuzentzea, Peñacerrada-Urizaharrako (Araba) udalerriko «Santutis» izeneko C) sekzioko baliabideak ustiatzeko zuzeneko emakidari Arabako Lurralde Ordezkaritzako Erregistro Liburuan 2.035 zenbakia esleituz.

2.– «C» sekzioko baliabideak ustiatzeko zuzeneko emakida, Santutis izenekoa, «Ofitas de Santutis, S.L.» (lehen «Ofitas de San Felices, S.A.») Arabako Lurralde Ordezkaritzako Erregistro Liburuan behar bezala inskribatzea, eta zenbaki korrelatiboa ematea, 2.035 zenbakikoa.

3.– Ebazpena interesdunei jakinarazteko eta EHAAn argitaratzeko agintzea.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Industria Sustatzeko sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko urriaren 23a.

Industria Garapen eta Administrazioaren zuzendaria,
JOSE LUIS AZKUE ARRASTOA.